

Gradu Amaierako Lan honen gaia Irungo Alde Zaharra Birgaltzeko Plan Berezia aztertzeke eratorria da. Honek, eraikin babes maila ezartzen du eraikin bakoitzaren balio historikoaren arabera. Saikapen horretan, alde zaharreko eraikin ugari "aldatze degradatzaile" moduan izendatu ditu eta hauek eraisteko proposamena luzatzen da.

Hau da Urnazu Frontoia kasua. Ondorengo orrietan azalduko den bezala, Frontoia urteetan pairatu duen degradazioaren ondorioz, jada ez du ahalmenik bere funtzio nagusia asetzeko, pelota jokarera; eta gainera, hiri taman oztopo bihurtu da. Beraz, honen lekualdatzea proposatzen du planak. Azaldutako egoera hori abiapuntutzat hartzen da proiektua garatzeko orduan.

Beraz, hutsik geratuko den orube horetarako Musikagunea proposatzen da. Programa hau bertatu da Irungo Musika Bandaren entsegu gunea izan dadin eta beste taldeen egoitza bihurtu dadin. Programa mota honekin eraikinaren eta inguruko espazio publikoaren arteko harremana bultzatu nahi da.

Bertako espazioak oso bereziak dira eta beraien arteko lotura lortu nahi da proposamen honekin. Kota aldaketak zainduko dira eta kale ezberdinetako ikuspegiak zabalduko dira.

Baina helburu nagusia Irungo gune kultural indartsuenari ekipamendu bat ematea da hiriko parke nagusienari lotuta.

Gradu Amaierako Lana
Olatz Esnaola Aguirrebarrena
Tutorea: Lauren Etxepare Igiñiz

